

Hitzaldiak: amaierako ekitaldia

3.12. Itxaropen bioartifizial apur bat

Guillermo Roa Zubia

Elhuyar aldizkariko erredaktore eta

Euskadi Irratiko Norteko ferrokarrila saioko aurkezlea

g.roa@elhuyar.eus

20-30 minutu inguruko hitzaldi bat emango dut nire eskarmentu pertsonala oinarri hartuta.

2013 urtea berri on batekin hasi zen niretzat: Tecnalia kazetaritza saria emango zidatela interneteko atalean, "Itxaropen bioartifiziala" artikuluaengatik. Sari handia da dibulgazioan, estatu mailakoa, eta pozik jaso nuen. Bertan aztertzen nuen nola zegoen zelula amen erabilera organo berriak sortzeko; oso hasieratan ginen, eta oro har gaia ez zegoen oso garatuta, baina bazeuden lorpen gutxi batzuk. Kontua da gerora jakin genuela ustezko lorpen horietako bat, Paolo Machiarini italiarraren lana, iruzurra zela. Nik Machiarini elkarrizketatu nuen, eta pozik, gainera. Beraz, gaizki aukeratu duzue hizlaria aurtengo osasun-biltzarra itxeko: jaso dudan saririk handiena iruzur bat zabaltzeko lan batengatik eman zidaten. Kasu hori kontatuko dizuet, eta, horrekin batera, nire eta medikuntzaren dibulgazioaren arteko harremanaz hitz egingo du

Nire dibulgetzaile-ibilbidearen zati handi bat irradian egin dut. Guztira 15 urte eman ditut astero mikro baten aurrean, zientziaz hitz egiten, eta gustatuko litzaidake gogoeta bat egitea irratia eta medikuntzaren dibulgazioari lotuta. EHUko Udako ikastaroetan, SER kateko ikastaro batean izan nintzen, eta bertan aukera txiki bat izan nuen irrati horretako komunikatzaile handiengandik ikasteko. Halako batean, galdetu zuten zerbaiten falta ote genuen irradian, eta neure burua aurkeztuta, esan nien zientzia gutxi zegoela irradian. Haien erantzunean argi utzi zuten "zientzia" hitza esaten denean, haiek "medikuntzarekin" identifikatzen zutela. Gogoetarako oso gai aproposa da, dibulgetzaile baten ikuspuntutik, behintzat.

Bukatzeko, irrati az, dibulgetzaio az eta osasunaren arlo az hitz egingo dut Norteko Ferrokarrilla irratiaioan egindako "Haurdun gaude" atala gogoratzeko. Denboraldi oso batek 42 saio inguru izaten ditu irradian, eta haurdunaldi bat 40 aste koa da, gutxi gorabehera. Beraz, haurdunaldi fikziozko baten jarraipena egin genuen astez aste antenan. Baina beti sortzen dira arazoak.